

ETIOPIA 1992

*Eras tierra, pasión, memoria, mito
culto en la danza y fiesta en el sustento,
pero ellos te imputaron el delito
de ser otro y ser libre como el viento.*

(Pedro Casaldaliga).

Hotzikarak jotzen nau begiak ortzeruntz zuzentzean; hotzikarak jotzen nau urrunetik datozen oihuetan murgildurik nere buruz sustrai katibuen kartzelari dakusatenean.

Hotzikarak jotzen nau; erraiak astintzen dizkidan arremgura eta negar jauzi bat zainetan behera, odola pozointzen, erraiak usteltzen, ezpata erdoilduaren poderioz isuritako odolak lur emankorra, bizitzaren sustrai, usteltzen duen gisan.

Hotzikarak jotzen nau, olatu inozenteen joan etorrian murgildurik, garai bateko ezpataren burniz osaturiko katea bai dakust, sustrai katibu eta ustelduen askapen irrintzia isildu nahiean.


Agian, egunen batean, mendebaldeko gizaki aurreratu eta zibilizalduaren bihotz handia erakusteko, Etiopiako anai basati eta zibilizaldugabekoengana joanen naiz Okzidenteko zoriontasunaz mintzatzer eta libreki eskeintzen diegun elkartrukaketa kulturalaz benefizia ahal ditezen.

Horregatik egunen batean, Etiopiar joango nintzateke. Bruselaseko bulego txukunetan erabiliko smoking eta zapata dotoreak etxean utzirik, diseinu berriko sport oinetako arinez, «peace and love» idazkia daukan kamiseta soinean, lurralde eder hartako ondar paradisiakoetan barneratuko nintzateke, eta bertakoei hitzegin: kaixo, hona zuen anai okzidentala, Europako ogia dakarkizuena; Tchernobilgo esne eta barazkiak oparitzen dizkizuena. Hona mendebaldearen eskerrona eta bihotz galanta. Bob Geldof en kontzertu humanitarioak dakarkizuet zeuon eskeletoa mugi dezazuen, eta Unicef-eko txartelak igortzen eguberrietako zuhaitzean eskegitzeko. Europear anaia nauzue; coca-cola, Michael Jacson eta saskibaloia zuen buruak zerbait probetxagarri bete ditzazuen.

Etiopiako ondar ederrean eseriko nintzateke eta hormonaz gizenduriko oilasko izter bat zurrupatu; Errioxako ardoaz guztiz bete eta zerri egitean, irrati eta telebista kate guztiak deituko nituzke «erupto» europear bat zuzenean eta stereon Etiopiako bazter guztietan ikus-entzun zezaten.

Etiopiaren erdian eleiz eskerga bat eraikiko nuke etiopiarren diru urriaz eta indar urriagoaz baliatuz, zerutik gertuago egon zitezen, zergatik diren pobre, zergatik diren goseti galdetzean erantzuna urrez apainduriko gurutze batean aurki zezaten.

Etiopian Legebiltzar eta Jaurlaritza bakar eta zentralzale bat ezarriko nuke dekretoz, etiopiarren gosea eta pobrezia administratua eta burokratizatua dela jakin zezaten, Aberriaren bedekapena daukatela jakin zezaten. Bertan Aita Saindua, Gorbachev eta Bushen argazki galantak zintzilikatu eta alderdi eta — ismo instituziozale guztiak deitu tolerantziaz, justiziaz, demokraziaz... eta — zia edo pitokrazia guztietan berba zegizaten. Horrela gure



Etiopia Bakar Handi eta Librean, Liberté-Egalité-Fraternité.

Etiopiako ondarretan etzango nintzake eta nere azal zuria koko esnez igurtzi; Etiopiako eguzki zoragarrian beltzaran bollito jarriko nintzake eta bidebatez, Christian Dioren bainu jantzien azken moda erakutsi.

Etiopiar emakume bat bere bular meharretatik heldu eta izter hezurren tartean nere barrabil europearrak igurtziko nizkioke, hamburgesa koipetsuz lodituriko nere txitxiak bere hezurren kontra zanpatuz, geuk, aberats eta pobreak, justu eta atsekabeak, europearrok eta etiopiarrok, plazerra elkarbanatu dezagun. Bederatzi hilabete beranduago, gose eta egarriak emakume hori gure Jaungoiko ahalguztidunaren erreinuetara oraindik eraman ez beirazko probeta batean sartu eta museo batetara bidaliko nuke, Etiopia eta Okzidente arteko elkartrukaketa kultural aberatsen lekuko.

Etiopiarra joango nintzateke, eta... munduak Etiopia «aurkitu» ko luke; honela, 2492. urtean Aurkikuntzaren V. Mendeurrena ospatu ahal izango genuke.

Jakin bezate etiopiarrek Mendebaldean beti urriak 12 dala.

Aitor Sarasola